

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Aernnova Aircraft Services, SAU enpresaren hitzarmen kolektiboa**

Ebazpena, Ekonomia, Lana eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebatzen da Aernnova Aircraft Services SAU enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01003342012007.

## AURREKARIAK

Aurkeztu da, ordezkari honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboak, lan-akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratzea eta gordailutzea.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

## EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen erregistroa eta enpresa, Aernnova Aircraft Services SAU lantokian hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 11

*Arabako lurralde ordezkaria*

**MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE**

**Aernnova Aircraft Services SAUren V. hitzarmen kolektiboa  
2023., 2024., 2025 eta 2026. urteetarako**

## 1. kapitulua. Baldintza orokorrak

**1. artikulua. Langile-eremua**

Hitzarmen kolektibo hau Aernnova Aircraft Services S. A. Unipersonal enpresaren Arabako Teknologia Parkeko lantokian, Miñaon (01510), lan egiten duten langile guztiei aplikatuko zaie, zuzendaritza-batzordeko kideei izan ezik eta, lanpostuaren, mailaren eta erantzukizunaren arabera beren borondatez "hitzarmenetik kanpoko langileak" direla adosten dutenei izan ezik.

**2. artikulua. Denbora-eremua**

Hitzarmen kolektibo hau 2023., 2024., 2025. eta 2026. urteetarako itundu da eta sinatzen den egunean jarriko da indarrean, lan-agintaritzan edozein egunetan erregistratuta ere. Gainera, jasotzen dituen betebeharrak eduki guztiak 2023ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginez aplikatuko dira.

2026ko urriaren 31tik aurrera, hitzarmen kolektibo honen amaiera automatikoki iragarritzat hartuko da, eta alderdiek hitzarmen berri bat sinatu arte luzatuko da.

**3. artikulua. Irenstea eta konpentsatzea**

Hitzarmen kolektibo honetan adostutako baldintza ekonomikoek osotasun edo unitate zatiezina eratuko dute, eta aplikazio praktikoari begira, oro har hartuko dira kontuan urteko zenbaketan.

Hitzarmen kolektibo honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek sektorean dauden guztiak irentsi eta konpentsatuko dituzte hitzarmena indarrean jartzen den unetik, kontzeptuen izena, nondik norakoa edo jatorria edozein izanda ere.

Kontzeptu ekonomikoetan izaten diren igoerek, edo, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, bestelako eremuetako hitzarmenen edo sektoreko arbitraje-erabakien, edo lege-xedapen orokorren eraginez ezarriko diren edonolako igoerek hitzarmen hau eraginpean hartuko dute, betiere oro har eta urteko zenbaketan hartuta hemen adostutako kontzeptuak gainditzeko badi-tuzte. Bestela, irentsi eta konpentsatu egingo dira, eta hitzarmen kolektibo honek bere horretan iraungo du, aldaketarik gabe.

**4. artikulua. Berme pertsonala**

Hitzarmen kolektibo hau indarrean jartzean, edozein langilek onartutako baldintza ekonomiko onuragarrienak errespetatu egingo zaizkio, bere osotasunean eta urteko zenbaketan.

Hitzarmen honetan arautzen ez diren eta 2005eko abenduaren 31ra arte langile bakoitzak izan dituen soldata-eskubideak osagarri bat osatuko dute; osagarria hilero jasoko da, eta ezin izango da konpentsatu, ezta irentsi ere.

**5. artikulua. Osotasunarekiko lotura**

Hitzarmen kolektibo honetan adostutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina eratuko dute; hortaz, lan-agintaritzak hitzarmenaren kontzepturen bat baliogabetzen badu, hitzarmena indarrigabe geratuko da bere osotasunean, eta berriz ere aztertu beharko da eduki osoa.

Ezin izango dira aplikatu hitzarmen kolektibo honen arau bat edo batzuk eta beste batzuk alde batera utzi; bere osotasunean aplikatu eta bete beharko da ondorio guztietarako.

**6. artikulua. Batzorde paritarioaren osaera**

Batzorde paritarioa honako hauek osatuko dute: enpresaren izenean, langileen delegatuek, eta, enpresa ordezkatzuz, enpresak berak izendatutako ordezkariak, betiere langileek batzorde paritarioan dituzten ordezkarien kopurua gainditu gabe.

Enpresaren zuzendaritzarekin akordioak egiten bada, sindikatuko ordezkariak aholkulariak izendatu ahal izango ditu, hitzarekin baina botorik gabe. Langileen delegatuek ordezkatzeko duten Sindikatu bakoitzeko gehienez aholkulari bat egongo da.

Batzorde paritarioko akordioek alderdi bakoitzaren gehiengoaren adostasuna beharko dute. Egindako bilera ofizialetan emaitzen akta egingo da, eta azkenik, langileen delegatuek eta zuzendaritzak akta sinatu beharko dute.

## 2. kapitulua. Lan-denbora

### 7. artikulua. Lanaldia

Hitzarmen kolektibo honetan ezarritako baldintza ekonomikoak indarraldiko sei urteetako bakoitzerako honako lanaldi hauei dagozkienak izango dira:

URTEAK	BENETAKO LANALDIA
2023	1734 ordu urtean
2024	1728 ordu urtean
2025 eta 2026	1720 ordu urtean

Urteko ordu guztien banaketa-erregimena lanaldi zatituan edo txandaka egin ahal izango da.

Benetako lanaldia betetzeko, hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera eguneko lanaldiaren bost minutu kenduko dira, eta hori dagokion lan-egutegian gauzatuko da hitzarmen kolektibo honetako ekitaldietarako.

### 8. artikulua. Ordutegiak

Lanaldi zatituko eta txandakako lanaldietako ordutegiak ezarriko dira.

Lan-ordutegia hitzarmen kolektibo honen urte bakoitzari dagokion lan-egutegian ezarritakoa izango da. Egutegiak konpainiaren jardueraren beharrak, haren konpromisoen beharrak eta industria-sektorearen beharrak kontuan hartuta landuko dira.

### 9. artikulua. Lan-denboraren antolamendua

Aernnova Aircraft Services bezeroari zerbitzu integralak eskaintzen dizkion enpresa bat da, eta beraz, bezeroaren eskaerak bete beharko ditu eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan, urteko 365 egunetan. Eskaeraren arabera, enpresak behar adina langile izan beharko ditu, eta horretarako, bere beharrak guztiz asetzen dituen lanaldi-banaketarako mekanismoa erabiliko du.

Horrenbestez, bi alderdiek ekoizpenaren beharrak asetzeko mekanismoak ezarriko dituzte –legezko mugen barruan–, eta beharrak agertzen direnean erabiliko dira, eta beharrezkoa izanez gero, dagokion malgutasun-formulak ere erabiliko dira.

Enpresan txandetako edo ordu-erregimeneko bestelako eredu bat ezarri aurretik, batzorde paritarioan eztabaidatu beharko da.

### 10. artikulua. Urrutiko telelana borondatezkoa eta ez-erregularra

Langileak, bere borondatez eta arduradunaren baimenarekin, urrutiko telelaneko egun oso bat egin ahal izango du astean (ez metagarria), betiere sartzeko eta antolatzeko baldintza hauek betetzen baditu:

1. Enpresak zehaztutako sailen edo azpisailen jardueraren eta zerbitzuaren beharrak betetzeko beharrezkoa den aurrez aurreko jarduera bermatuta egon beharko da.

2. Enpresak definitutako lanpostuak edo funtzioak dituzten eta modu presentzian etengabe egin behar ez diren langileei zuzenduta dago.

3. Lanpostuaren jarduerari, autonomiari, lana planifikatzeko gaitasunari eta erantzukizunari buruzko ezagutza nahikoa izatea, bere eginkizunak eta produktibitatea beteko dituela ziurtatzeko.

4. Enpresak emandako tresna hauek izatea: lanerako gai den eta bere erabiltzaile-profilaren arabera beharrezkoa den softwarea duen ekipo informatiko bat. Enpresaren jabetzako ekipoak zaintzea langilearen erantzukizuna izango da, eta behar bezala eta arduraz erabiliko ditu.

5. Interneterako konexioa izatea. Bere lana egiteko konektagarritasuna eta sare-estaldura (datuak) egokiak izatea.

6. Enpresak ezarritako Datuak babesteko eta informazioaren segurtasunerako politika betetzea.

7. Lantokiaren urteko lan-egutegian lan presentzialerako ezarritako lanaldia eta ordutegia betetzea, edo, bestela, arduradunarekin adostutakoa, lana presentziala balitz bezalako mailan egiteko.

Langileak urrutiko laneguna adieraziko du hileko egutegi bat erabiliz. Egutegi hori arduradunak onartuko du, sailaren edo azpisailaren jarduera bermatzeko beharrezkoa den presentziaren arabera. Era berean, egun horretan izango duen ordutegia zehaztuko du, ordu erabilgarriak zein diren jakiteko.

Langileak lanaldia erregistratu beharko du enpresak duen aplikazioan.

8. Zerbitzua ohiko bizilekutik eman beharko da. Edozein helbide-aldaketa aldeztu aurretik jakinarazi behar da eta enpresak onartu beharko du.

9. Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresako prebentzio zerbitzuak urrutiko lanari buruz ezartzen duena beteko da.

10. Urrutiko telelana itzulgarria da edozein unetan, modu iraunkorrean edo aldi baterako, bai langilearen interesetatik, bai enpresak lana antolatzeke egokitzat jotzen dituen arrazoiengatik.

Gainera, arduradunak langileak finkatutako urrutiko telelanaren lanegunak aldatu ahal izango ditu, presentzia ziurtatzeko, baldin eta eskaera-data bera, aurrez aurreko guardiak, bajak, bilerak, ikastaroak, bidaiak, oporrak, baimenak, bitartekoak edo antzeko egoerak badaude.

Hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera eta atzeraeraginik gabe, urrutiko jarduera egiten den egunetan hitzarmen honetan ezarritako garraio-plusei eta otordu-laguntzari dagozkien zenbatekoak ordaintzen jarraituko da.

Urrutiko lan-eredua aldizka berrikusiko da, zerbitzua modalitate horretan ematen den bitartean sor daitezkeen egoerak eta inguruabarrak ebaluatzeke.

### 3. kapitulua. Soldata-ordainsariak

#### 11. artikulua. Ordainketa-kontzeptuak

- Eginkizunaren araberako soldata: 12 ordainsari arruntetan eta 2 apartekotan sorraraziko da.
- Eginkizunaren araberako osagarria: 12 ordainsari arruntetan eta 2 apartekotan sorraraziko da.
- Helburuen araberako ordainsari aldakorra: aurreko bi kontzeptuei dagozkien kopuruen gaineko ehuneko finkatzen da.
- Soldata-plusak.

#### 12. artikulua. Soldata berrikustea

2023., 2024., 2025. eta 2026. urteetarako urteko soldata-igoera ezartzen da; igoera horrek soldataren ordainsari-kontzeptuak eta eginkizunaren araberako osagarriak eraginpean hartuko ditu, honako zenbateko hauetan:

2023. urtea: ehuneko 5.

2024. urtea: KPI.

2025. urtea: KPI.

2026. urtea: KPI.

### 13. artikulua. Plusak

2023ko ekitaldian plus bakoitzerako hitzarmen honetan ezarritako zenbatekoa handitu egingo da, 12. artikuluan 2024., 2025. eta 2026. urteetarako itundutako berrikuspen-formulen arabera.

#### A. Txandak:

2023rako, eta hitzarmena sinatzen denetik aplikagarria, honako hau ezartzen da:

– Txanda bakoitzerako plusa, hilero 50,52 euro gordinekoa, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean ematekoa.

– Txanda hirukoitzerako plusa, hilero 157,36 euro gordinekoa, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean ematekoa.

– 4. txandako plusa, hilero 248,46 euro gordinekoa, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean ematekoa.

– 5. txandako plusa, hilero 379,60 euro gordinekoa, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean ematekoa.

Plus horiek langileak txanda-sistemetako batean egiaz atxikita lan egiten aritu diren denboran ordainduko dira.

#### B. Laguntza teknikoa.

Laguntza teknikoko plusa:

Lanalditik kanpo laguntza teknikoko zereginak esleituta dituzten langile guztiak konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute: 52,01 euro lanaldi efektiboko egun bakoitzeko, eta 137,54 euro jaiegun, larunbat edo igande bakoitzeko. Konpentsazio horrek eguneko guardiak, bezeroarentzako arreta teknikoa eta ordezeko piezen ziurtagiria estaliko ditu. Horrez gain, benetako lan-ordutegitik kanpo langilearen presentzia beharrezkoa bada, atsedenaldiarekin konpentsatuko da.

Egindako kilometroak (gehienez 50 km) konpentsatuko dira, bidaien araudiaren arabera, betiere zerbitzua egun gehigarri batekin konpentsatzen ez bada.

#### C. Ordezko piezak.

Ordezko piezengatiko plusa:

Benetako lanalditik kanpo ordezeko piezen atalaren ardura esleituta duten langileek beren prestasuna dela-eta benetan lan egindako egun bakoitzeko 41,41 euroko konpentsazioa jasoko dute, eta 75,92 eurokoa jaieguna, larunbata edo igandea bada, eguneko zaintzak, bezeroentzako merkataritza-arreta (baita telelana ere) eta ordezeko piezak bidaltzea (behar izanez gero) barnean hartuta.

Osagarri gisa, lanaldi zatituan eta 2 edo 3 txandetan lan egiten duten langileek jaiegunetan, larunbatetan eta igandeetan ordezeko ohiko lanak beren presentziarekin bete behar badituzte, langile horiek ere konpentsazioa jasoko dute; eguneko 124,23 euroko plus bat ordainduko zaie, eta gainera, lan egindako epeari dagokion atsedeen-denbora hartuko dute. Atsedenaldia, ahal den heinean, zerbitzua eman den aste berean hartuko da.

Aurrekoan bezala, honetan ere egindako kilometroak (gehienez 50 km) konpentsatuko dira, bidaien araudiaren arabera, betiere zerbitzua egun gehigarri batekin konpentsatzen ez bada.

#### D. Biltegia.

Biltegiratze-plusa:

Lanorduetatik kanpo biltegiratze-lanak esleituta dituzten langileek beren prestasuna dela-eta benetan lan egindako egun bakoitzeko 27,61 euroko konpentsazioa jasoko dute, eta 62,12 eurokoa jaieguna, larunbata edo igandea bada, eguneko zaintzak eta ordezeko piezak bidaltzea (behar izanez gero) barnean hartuta.

Osagarri gisa, lanaldi zatituan eta 2 edo 3 txandetan lan egiten duten langileek jaiegunetan, larunbatetan eta igandeetan biltegiko ohiko lanak beren presentziarekin bete behar badituzte, langile horiek ere konpentsazioa jasoko dute; eguneko 124,23 euroko plus bat ordainduko zaie, eta gainera, lan egindako epeari dagokion atsedeen-denbora hartuko dute. Atsedenaldea, ahal den heinean, zerbitzua eman den aste berean hartuko da.

Aurrekoan bezala, honetan ere egindako kilometroak (gehienez 50 km) konpentsatuko dira, bidaien araudiaren arabera, betiere zerbitzua egun gehigarri batekin konpentsatzen ez bada.

E. Larunbatetako, igandeetako edo jaiegunetako lanak.

Lanaldi zatituan edo txandaka lan egiten duten langileek beren borondatez jaiegunetan, larunbatetan eta igandeetan Aernnova Aircraft Services enpresako edozein departamentutako ohiko lanak beren presentziarekin egiten badituzte, benetan lan egindako egun bakoitzeko 124,23 euro ordainduko zaie, eta gainera, lan egindako epeari dagokion atsedeen-denbora hartuko dute. Atsedenaldea, ahal den heinean, zerbitzua eman den aste berean hartuko da.

Aurrekoan bezala, honetan ere egindako kilometroak (gehienez 50 km) konpentsatuko dira, bidaien araudiaren arabera, betiere zerbitzua egun gehigarri batekin konpentsatzen ez bada.

#### **14. artikulua. Helburuen araberako aparteko ordainsaria**

Zuzendaritzak eta eremu bakoitzeko arduradunek balioztatutako helburuen araberako aparteko ordainsari bat ezarriko da, honako premisa hauen arabera:

- Kalkulu-oinarria aparteko ordainsari baten berbera izango da, eta ehuneko 100eko lortu-muga izan daiteke.
- Aparteko ordainsaria banaka kalkulatzeko eta baloratzeko irizpidea I. eranskinean azaltzen da.
- Urtean ordainketa bakarra egingo da, helburuak dagozkion ekitaldiaren ondoko ekitaldiaren lehen hiruhilekoan.
- Urteko lehen lauhilekoan programen beharren araberako helburuak finkatuko dira.
- Helburuak langileentzako argiak eta ulergarriak izango dira.

#### 4. kapitulua. Bestelako diru-sariak

#### **15. artikulua. Garraioa**

Garraio-plusa: langile guztiak kontzeptu horrengatik hilean 69,94 euro gordin jasoko dute, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean. Plus hori ez da jasoko aldi baterako ezintasun-egoeretan, eta haren zenbatekoa hitzarmen honen indarraldiko urte bakoitzari dagokion 12. artikuluan itundutako balioen arabera igoko da.

#### **16. artikulua. Jateko laguntza**

Jateko laguntza-plusa: langile guztiak kontzeptu horrengatik hilean 99,90 euro gordin jasoko dute, 12 ordainsari arruntetako bakoitzean. Plus hori ez da jasoko aldi baterako ezintasun-egoeretan, eta haren zenbatekoa hitzarmen honen indarraldiko urte bakoitzari dagokion 12. artikuluan itundutako balioen arabera igoko da.

#### **17. artikulua. Aldi baterako ezintasuneko egoeretako osagarria**

Aldi baterako ezintasuneko egoera guztietan, Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoak osatuko dizkie enpresak langileei, prestazio horien hileko ordainsari arruntaren ehuneko 100eraino.

Enpresak legez aurreikusitako kontrol-mekanismoak ezarriko ditu osagarria ongi ematen dela bermatzeko.

**18. artikulua. Kilometrajea**

Enpresaren premiak direla-eta, langileak bere ibilgailuan bidaiak edo joan-etorriak bere borondatez egin behar baditu, kilometro bakoitzeko 0,32 euro jasoko ditu garraio-gastu gisa.

Puntu honetan aipatutakoa Aernnova Aircraft Services enpresaren V. Hitzarmen Kolektiboa sinatzen den egunetik aurrera aplikatuko da, atzeraeraginik gabe.

**5. kapituluua. Langileen arloa****19. artikulua. Ordaindutako lizentziak eta baimenak**

Bi alderdiek, onura horien izaera konpontzailearen jakitun, hitzez-hitzezko interpretazio arrazionala egiteko eta kapitulu honetan jasotako lizentziak eta baimenak arduraz baliatzeko konpromisoa hartzen dute.

Artikulu honetan aurreikusten ez denari dagokionez, Langileen Estatutuan xedatutakoari jarraituko zaio.

Heriotza, gaixotasun edo istripu larria (medikuaren txostenaren arabera), ospitaleratzea eta ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoa (etxean atsedean hartzea behartzen bada) eta ezkontza kasuetan, baimena eragin duen gertaera laneguna ez den egun batean gertatu bada, hurrengo lanegunean hasiko da zenbatzen baimen hori, baldin eta lan-harremana ez badago etenda edo langilearen oporretan gertatu ez bada.

- Hauetakoren baten heriotza:

- Ezkontidearena: egutegiko 5 egun, eta ordaindu gabeko 2 egun gehiago eskatu ahal izango ditu.

- Guraso, ezkontzazko guraso, eta odol-ahaidetasunezko seme-alaba eta anai-arrebena: egutegiko 3 egun.

- Ezkontzazko seme-alaba eta anai-arrebena: egutegiko 2 egun.

- Biloba eta aitona-amonena: egutegiko 2 egun.

Aurreko gertaera eragile horren ondorioz, langileak bidaia egin behar badu, eta joateko gutxienez 200 km egin behar baditu eta etortzeko beste 200 km, baimenak egutegiko beste 2 egun gehiago luzatuko dira.

- Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen, edo beste edozein pertsonaren, istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, baldin eta langilearekin etxebizitza berean bizi bada eta hura benetan zaindu behar bada: 5 egun.

Kasu horietan, alde aurretik langileak arrazoitutako eskaera aurkeztuta, segidakoak ez diren egunetan baliatu ahal izango da baimena.

- Ezkontzaren kasuan:

- Enplegatua ezkontzen bada: egutegiko 18 egun, baina hilabete bat lehenago jakinarazi beharko dio langileak enpresari. Baliatzeko epea zatiezina izango da, eta epe horren barruan ezkondu beharko du.

- Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko gurasoak, seme-alabak eta anai-arrebak ezkontzen badira: egutegiko egun bat, ezkontza-eguna laneguna baldin bada.

- Semea edo alaba jaiotzen bada:

- Seme-alaben jaiotzagatik, indarreko legerian xedatutakoa beteko da (Langileen Estatutuen 48.4 artikulua).

– Adopzioaren kasuan, langileak gehienez 5 egun izango ditu –egun horiek urtean zehar banatu ahal izango ditu–, adopzioarako behar den dokumentazioa izapidetzeko baimen gisa, betiere izapidetze horiek aldez aurretik justifikatuta.

- Edoskitzea:

Langileek, bederatzir hilabete baino gutxiagoko semea edo alaba edoskitzeagatik, lana ordu-betez uzteko eskubidea izango dute eta ordu hori bi zatitan hartu ahal izango dute. Ordu horiek edoskitzealdian zehar metatu ahal izango dira, eta langileak nahi ahala hartuko ditu, enpresarekin ados jarri ondoren. Biek lan egiten badute, amak edo aitak hartu ahal izango du baimen hori.

- Nortasun-agiria, gidabaimena eta berritzeak:

Agiri publikoak egiten dituzten zentroen irekitzeko eta ixteko ordutegia eta lan-ordutegia berdinak badira, behar den denbora emango da.

- Gizarte Segurantzako medikuaren kontsultara joateko:

Gizarte Segurantzako espezialisten mediku-kontsultara joateko behar den denbora, kontsulta-ordutegia eta lan-ordutegia aldi berekoak badira, eta aipatutako kontsulta medikuntza orokorreko medikuak agintzen badu. Langileak aipatutako agindu medikoa egiaztatuko duen txartela aurkeztu beharko du gertakari-partearekin batera.

Gainerako kasuetan, hau da, medikuntza orokorreko sendagilearen kontsultara joateko, langile bakoitzak urtean gehienez 20 ordu izango ditu. Muga horretan, kontsulta horietara bakarrik joan ezin diren eta langilearen laguntza behar duten ahaideei (ezkontidea, gurasoak eta seme-alabak) laguntzea sartuta dago.

Halaber, seme edo alaba urritu psikiko edo fisikoak dituzten enplegatuek urtean egutegiko 2 egun hartzeko aukera izango dute seme edo alaba horien mediku-kontsultetara joateko.

- Etxebizitza aldatzea:

Egutegiko egun 1. Baimena 10 egun lehenago eskatu beharko da, eta ondoren egiaztatu, egutegiko 60 eguneko epean, dagokion erroldatze-ziurtagiriaren bitartez.

Artikulu honetan bildutako edozein lizentzia aplikatzeko, dagokion udal-erregistroan behar bezala egiaztatutako izateko bikoteak ezkontza zibileko senar-emaztetzat hartuko dira.

- Lanbide-prestakuntza:

Enpresaren jarduera nagusiarekin zuzeneko lotura duen edozein titulu edo gaitasun-ziurtagiri lortzeko zentro ofizialetan antolatzen diren ikastaroetan izena ematen duten langileek enpresan indarrean dagoen eta ikastaroari ongien egokitzen zaion ordutegi-erregimenera aldatzea eskatu ahal izango dute, ikastaroa amaitu arte.

- Azterketak.

Titulazio ofizialetako azterketak egiteko behar adina denbora emango da, betiere lan-ordutegian gertatzen badira eta kontratuko edukiarekin lotura baldin badute.

## 20. artikulua. Ordaindu gabeko baimenak

Langileak urtean lanegun bat hartu ahal izango du ordaindu gabeko baimen gisa, eta gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko du.

## 21. artikulua. Adingabeak zaintzea

Langileek lanaldi-murrizketa eskatu ahal izango dute seme-alaba adingabeak zaintzeko, legez aurreikusitako baldintzetan, soldata proportzioan murriztuta.



**22. artikulua. Lan-istripuen aseguru**

Enpresak lan-istripuen aseguru-poliza kontratatuko du, enplegatu guztiei honako estaldura hauek bermatuz:

– 60.101,21 euro lan-istripuak eragindako heriotzagatik edo lan-istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren ondoriozko ezintasun iraunkor absolutuarengatik edo baliaezintasun handiarengatik, betiere laneko eta gizarte-segurantzako erakunde eskudunek horrelakorik aitortu badute.

– 42.070,85 euro lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako ezintasun iraunkor osoarengatik, betiere laneko eta gizarte-segurantzako erakunde eskudunek horrelakorik aitortu badute.

**23. artikulua. Langileentzako funtsa**

Urtean 1.800,00 euroko langileentzako funtsa sortuko da, eta honako irizpide honen arabera banatuko da:

a) Langileen legezko ordezkariak urtero 1.450,00 euro izango ditu eskaera indibidualei aurre egiteko, baina eskaera horiek onartzeko eta esleitzeko irizpideak giza baliabideetako zuzendaritzaren eta langileen legezko ordezkariaren artean adostu beharko dira.

b) Gainerako zenbatekoa, hau da, urteko 350,00 euro, izaera sozialeko jardun jakin batzuk estaltzeko bideratuko dira; nolana ere, jardun horien interes kolektiboa zuzendaritzak ezarriko du.

**24. artikulua. Haurdun dagoen emakumearen lanpostua**

Haurdun dauden langileek egoera horretarako egokiagoa den lanpostu bat behar badute, eman egingo zaie aldi baterako, betiere medikuaren ziurtagiria aurkeztu ondoren, eta enpresaren ahalmen teknikoak eta antolamenduzkoak kontuan izanda.

**25. artikulua. Medikuzterketa**

Langile guztiek urtean behin mediku-azterketa bat egiteko eskubidea izango dute. Enpresan osasunaren zaintzaz arduratzen diren profesionalak egingo dituzte azterketak, lanaldian bertan.

Langile bakoitzak, banaka, berari egindako mediku-azterketaren emaitzak jakiteko eskubidea izango du.

**I. ERANSKINA**

## 1. Helburuen araberako aparteko ordainsaria.

Helburuak lortzeagatiko gehieneko balioa 90+10 (ehuneko 100) izango da. Nolanahi ere, kalkuluaren banaketa honela egingo da:

– Balioaren ehuneko 90, urteko ekitaldiko Etengabeko Hobekuntza Planean definitutako kudeaketa-planaren arabera.

– Balioespen subjektiboaren ehuneko 10.

2023ko helburuen lorpena aurreko hitzarmen kolektiboaren erregulazioaren arabera ordaindu da (I. eranskina).

2024. urteari eta hurrengoei dagozkien helburuen lorpena honako formula hauen arabera kalkulatu da:

BALDIN (E-T) < 6 egun => Helburuen ehunekoa =  $(PG * 0,90 * 1) + (0,10 * B)$ .

BALDIN (E-T) > edo = 6 egun eta < edo = 40 egun => Helburuen ehunekoa =  $(PG * 0,90 * A) + (0,10 * B)$ .

BALDIN (E-T) > 40 egun eta < 141 egun => Helburuen ehunekoa =  $((PG * 0,90 * A) + (0,10 * B)) * A$ .

BALDIN (E-T) > edo = 141 egun => Helburuen ehunekoa = % 0.

Non:

PG = Urteko kudeaketa-planaren helburuak lortzearen ehunekoa.

B = Balorazio subjektiboa, bere funtzioa betetzearen, helburu orokorrearen egiten dien ekarpenaren eta jarreraren arabera zehaztua. Ehuneko 0 eta ehuneko 100 bitarteko balioa.

A = (T/E).

E = Benetako lanegunak, enpresak argitaratutako urteko lan-egutegiaren arabera.

T = Urte natural batean benetan lan egindako egunak. Aldagai honen ondorioetarako, lan egindako eguntzat hartuko dira amatasun- eta aitatasun-egoerak, ordaindutako lizentzia eta baimenak eta lan-istripuak eragindakoak.